

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Bautista Iraola Malkorra Patxi

*Larraul,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Bere izena Juan Bautista izan arren, Patxi bezala da ezaguna. Larraulgo Agerrezar baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa, eta ama, Oresakoa. Bost senidetan zaharrena izanik, beti jakin izan zuen etxerako izango zela, eta gustura aritu izan da beti baserriko lanetan. 1975etik 1979ra Larraulgo udaletxeko zinegotzi ere izan zen.

Zintak

LUL-004

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:**
- **Iraupena:** 11 min
- **Euskarria:** DVD

LUL-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-07-21
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Oso txikitatik etxean lagundu behar izan du

- **Erref:** LUL-008/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:07:33

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Gerra denboran aita soldadu ibili zen, eta Juan Bautista esnea partitzen laguntzera joan behar izaten zen, eskolara joan aurretik. Zazpi urte zituela, Asteasura oinez joan behar izaten zuen ogi bila.</p>

2. Gerra, ume baten ikuspegitik

- **Erref:** LUL-008/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:10:08

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gerra denboran, erretore-etxean gordeta egoten ziren umeak. Umeek ez zuten beldurrik pasa, baina zaharrek bai. Gerra denbora gutxi luzatu zen herrian. Bandoz aldatu zen bati buruz hitz egiten du.</p>

3. Gerra ondorengo urteak izan ziren gogorrenak

- **Erref:** LUL-008/009
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:12:30

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Urte okerrenak gerra ondorengoak izan ziren, gosearengatik. 40. hamarkadaren amaierarako gauzak hobetu ziren. Etxean lanerako makina ere erosi zuten. Moesa motorra zuen.</p>

4. Artoa egiteko prozesua

- **Erref:** LUL-008/010
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:16:43

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Etxean artoa nola egiten zuten deskribatzen du. Lurra prestatu, simaurra bota, zuloak egin... Artoa eta babarruna elkarrekin egiten zituzten.</p>

5. Artoa zaindu eta bildu

- **Erref:** LUL-008/011
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:16:43. **Bukatu:** 00:20:04

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Artoa haziz gero, lorea kendu behar izaten zitzaion. Hortik aurrera eman beharreko pausoak deskribatzen ditu. Artoari kendutakoa ganaduari ematen zitzaion. Neguan artoa zuritzen zuten. Biltzeko garaia San Martin inguruan izaten zen, azaroan. Bildu ondoren gurdira eta handik mandiora eta ganbara eramaten zuten.</p>

6. Babarruna noiz biltzen zuten

- **Erref:** LUL-008/012
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:20:04. **Bukatu:** 00:21:31

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Babarruna irailean biltzen zuten. Eguraldi lehorra behar da horretarako. Lekarekin uzten zuten lehortzen. Eguberri aldera zuritzen zuten.</p>

7. Babarrun zakua belar artean gordeta

- **Erref:** LUL-008/013
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:21:31. **Bukatu:** 00:23:03

Gaia(k):

- Baserria
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ondoren, ekoiztutakoa deklaratu behar izaten zenean, amonak babarrun zakuak mandioko belar artean gordetzen zituen. Herriari gauza asko entregatzen zizkieten hala ere.</p>

8. Gerra ondorengo eskasiak sortutako pasadizoa

- **Erref:** LUL-008/014
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:23:03. **Bukatu:** 00:26:06

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gerra ondoren, txekor baten inguruan gertatutako pasadizoa. Alkate karlista eta Guardia Zibila etxera sartu ere egin ziren. Juan Bautistaren etxeok txerriak beste baserri batean gorde zituzten.</p>

9. Gerra ondorengo janariak

- **Erref:** LUL-008/019
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:33:34

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>40. hamarkadan oliorik ez zegoen, esnegaina erabiltzen zuten babarrunei botatzeko. Patatak, txerri urdaia eta besterik ez zegoen. Amak gazta oso ona egiten zuen. Ez zuten ardirik, behi esnearekin egiten zuen gazta amak.</p>

10. Amak gazta nola egiten zuen

- **Erref:** LUL-008/020
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:37:44

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Amak etxean gazta nola egiten zuen azaltzen du. Gatzagia Tolosako azokan erosten zuen. Prozesu guztia eskuz egiten zuen. Moldeak burdinazkoak ziren. Gazura txekorrentzat gordetzen zuten.</p>

11. Etxeko abereak nola elikatzen zituzten

- **Erref:** LUL-008/021
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:37:44. **Bukatu:** 00:38:41

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Garai haietan pentsurik ez zegoen abereentzat. Animaliak etxeko gauzekin elikatzen zituzten, erremolatxaren pulparekin eta horrelakoekin.</p>

12. Azukre erremolatxa

- **Erref:** LUL-008/022
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:38:41. **Bukatu:** 00:40:59

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Azukre erremolatxa sail handiak izaten ziren garai batean. Noiz eta nola egiten zen argitzen du. Barruan gorde behar izaten zen, berehala izozten da eta.</p>

13. Ezpain-soinua igande arratsaldeetan

- **Erref:** LUL-008/024

- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:43:03. **Bukatu:** 00:44:34

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Igande arratsaldetan musika izaten zen. Nicolas Azpeitiko Iztingakoa izaten zen musikaren arduraduna. Ezpain-soinua jotzen zuen. Ez zuten dantzarik egiten.</p>

14. Larraulgo festak zergatik atzeratu ziren

- **Erref:** LUL-008/025
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:44:34. **Bukatu:** 00:46:15

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Larraulgo festak San Esteban egunean eta San Bartolometan izaten ziren. Festak San Bartolometara zergatik atzeratu zituzten argitzen du.</p>

15. Oilasko jokia Larraulgo festetan

- **Erref:** LUL-008/026
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:47:37

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Garai batean festa gehiegirik ez zen izaten. Oilasko jokia egiten zen. Joko hura nolakoa zen kontatzen du.</p>

16. Aurrerapen gutxi Francoren garaian

- **Erref:** LUL-008/030
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:58:01. **Bukatu:** 00:59:57

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Francoren garaian herriak ez zuen dirurik jasotzen, eta ez zen batere aurreratu. Argindarra bazegoen. Errepideak 1957 urtean egin ziren. Kotxe gutxi zeuden garai haietan.</p>

17. Asteasura oinez, egurra eramatera

- **Erref:** LUL-008/031
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:59:57. **Bukatu:** 01:01:40

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Larraulen burdinola egon zen, baina martxan ez dute ezagutu. Neguan Asteasura egurra eramatera joaten ziren, oinez.</p>

18. Larraulgo bailarak

- **Erref:** LUL-008/032
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:01:40. **Bukatu:** 01:03:02

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Larraulgo bailarak zeintzuk diren kontatzen du. Bakoitzaren izenen zergatiak argitu ere bai.</p>

19. Eskualdeko euskara eta oraingo euskara berria

- **Erref:** LUL-008/033
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:03:02. **Bukatu:** 01:05:05

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Euskararik garbiena Tolosakoa dela esaten dute. Larrauletik Aia eta Azpeitira euskara asko aldatzen da. Inguruko herrietan ez dago desberdintasunik. Oraingo euskara berria ezin omen dute ulertu.</p>

20. Umetan mendian egindako bihurrikeria

- **Erref:** LUL-008/035
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:08:32. **Bukatu:** 01:11:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

<p>Mutil koskorretan mendira askotan joaten ziren. Elurra egin zuen batean gertatutako pasadizoa gogoratzen du.</p>

21. Txoriak harrapatzen

- **Erref:** LUL-008/036
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:11:18. **Bukatu:** 01:13:28

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Umetan txoriak harrapatzen ibiltzen ziren. Erabilitako teknikak azaltzen ditu. Zozoak, birigarroak, txepetxak eta horrelakoak izaten ziren.</p>

22. Umetako bihurrikeriak

- **Erref:** LUL-008/038
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:14:19. **Bukatu:** 01:16:16

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Eskolara joan gabe gelditu ziren batzuk basoan gorde zirela gogoratzen du. Zigortu egin zituzten, eta beldurtu egin ziren. Apaiza Don Luis zen. Harekin ere istilu bat baino gehiago izan zituzten. Makilarekin jotzen zituen.</p>

23. Elizan neska-mutilak ez ziren elkarrekin eseritzen

- **Erref:** LUL-008/040
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:17:25. **Bukatu:** 01:19:02

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Elizako aukietan neskak eta mutilak banaturik esertzen ziren. Orain jende gutxi joaten da elizara. Garai batean bezperetara Garizuman joaten ziren.</p>

24. Apaizaren sermoiak: bekatua eta infernua

- **Erref:** LUL-008/041
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:19:02. **Bukatu:** 01:22:44

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Prozesioak, gurutzeari muin ematea... Sermoi luzeak egiten zituen apaizak garai haietan. Bekatua eta infernua izaten ziren gai nagusienak. Larraulen Donostian baino bekatu gehiago egiten zirela esaten zuen apaizak. Sermoia pulpitutik botatzen zuen.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com